

MEMORIA KONTUA?

Jarduera honekin hau landuko dugun:

Injustiziaren kontzeptua baliabideak eta aukerak esleitzean.

Iraupena

Saio bat.

Kontuak hartu beharrekoak

Banatuko dugun testua talde guztientzat berdina bada ere, bakoitzak jarraibide desberdinak ditu mezua helarazteko.

Jarri aulkiak hiru ilaratan, hiru taldeak elkarrengandik ahalik eta urrunen egon daitezen. Eman mezua lehenengo postuan (A) daudenei, gainerako gelakideez aparte eta haien arteko kontakturik gabe. Memorizatu eta itzuli egiten behar dute. Oharrak 1. taldekoek bakarrik har ditzakete.

Zalantzak argitzean, egin taldeka, zer desberdintasun dauden jakin ez dezaten.

Garapena

Banatu ikasleak hiru taldetan (ahalik eta kopuru antzekoena izan behar dute). Eman talde bakoitzari bere jarraibide-orria.

Guztiek jarraibideak ulertu dituztenean, eskatu talde bakoitzari ilaran eserita jartzeko. Deitu lehenengo postuan daudenei, mezua ikus dezaten.


Talde guztiek beren mezuak taldeko guztiei pasatu dizkietenean, azken postuko pertsonak idatzi duten mezua eta taldearen jarraibideak irakurriko dituzte, 3. taldetik hasi eta 1.etik bukatuta.

Gero, irakurri jatorrizko mezua, eta egin gogoeta ikasleekin, honelako galderak eginez:

- Zein izan da mezua leialen transmititu duen taldea?
- Bidezkoa al da hiru taldeak berdin baloratzea? Zergatik?
- Nola sentitu zarete jarduera egiten?
- Baldintzak berdinak izan dira denentzat?
- Zuen ustez, aukerak bidezko moduan banatuz gero, taldeek antzeko emaitzak lortuko lituzkete?
- Nola definituko zenituzkete, hitz bakar batekin, jarduera honetan taldeek izan dituzten baldintzak?

1. taldearentzako jarraibideak

Ilaran jarri behar duzue, eskema honen arabera:




A postuan dagoen pertsonatik hasita, ilara osoan zehar ahoz transmititu behar duzue emango zaizuen testua, azken postua (B) dueneraino. Komunikazioa ahapetik egingo da, eta ezin du taldeko kide batek baino gehiagok batera hitz egin.

Informazioa ematen dizuen pertsonari galderak egin eta harekin zalantzak argitu ditzakezue, baita oharrak hartu ere, baina ezin dizkiozue hurrengo pertsonari erakutsi, mezua transmititzea egokitzen zaizuenean.

Amaieran, B postuan dagoenak berari helarazi dioten mezua idatziko du.

2. taldearentzako jarraibideak

Ilaran jarri behar duzue, eskema honen arabera:




A postuan dagoen pertsonatik hasita, ilara osoan zehar ahoz transmititu behar duzue emango zaizuen testua, azken postua (B) dueneraino. Komunikazioa ahapetik egingo da, eta ezin du taldeko kide batek baino gehiagok batera hitz egin.

Informazioa ematen dizuen pertsonari galderak egin eta harekin zalantzak argitu ditzakezue.

B postuan dagoen pertsonak, papera eta arkatza dituen taldeko pertsona bakarrak, helarazi dioten mezua apuntatuko du.

3. taldearentzako jarraibideak

Ilaran jarri behar duzue, eskema honen arabera:



A postuan dagoen pertsonatik hasita, ilara osoan zehar ahoz transmititu behar duzue emango zaizuen testua, azken postua (B) dueneraino. Komunikazioa ahapetik egingo da, eta ezin du taldeko kide batek baino gehiagok batera hitz egin.

Buruz ikasi behar duzue ematen zaizuen informazioa. Mezua dena batera eta behin bakarrik transmititu behar da, ezin da errepikatu, ezin da galderarik egin edo argibiderik eskatu.

B postuan dagoen pertsonak, papera eta arkatza dituen taldeko pertsona bakarrak, helarazi dioten mezua apuntatuko du.

MEZUAREN TESTUA

“FAOren arabera, gaur egun munduan dagoen biztanleriaren ia bikoitza elikatzeko adina ekoizten da. Hala ere, 800 milioi pertsona inguruk ezin dute jan, eta ez zaie benetan aitortzen elikatzeko duten oinarritzko eskubidea.”

ELKARREN ANTZA DUGU

Jarduera honekin hau landuko dugu:

Enpatiaren balioaz hausnartzea.

Iraupena

Saio bat.

Kontuak hartu beharrekoak

Eseri borobilean parte-hartzaileak. Aukeratu ausaz edo hezitzailearen iritziz egokien den beste edozein modutan, gustatzen zaion zerbait eta beldurra ematen dion zerbait besteei jakinarazten lehena izango den pertsona.

Enpatia besteen lekuan jartzeko gaitasuna da. Funtsezkoa da beste pertsona batek transmititu nahi digun guztia ongi eta sakon ulertzeko eta, horrela, gure ingurukoekin hobeto erlazionatzeko. Enpatia duten pertsonak besteen arazoak eta motibazioak ulertzeko gai direnak dira. Gaitasun horrek ez dakar soilik pertsona batek besteari gertatzen zaiona ulertzea, axola izatea eta bere sentimenduak ezagutaraztea ere badakar.

Enpatizatu gabe, inoiz ez gara gai izango inguruan ditugun pertsonak zer egoeratan dauden eta sentimendu dituzten ongi jakiteko eta, beraz, ez gara gai izango pertsona horiei laguntza eraginkorra eskaintzeko.

Jardueran, lehenik eta behin, gustuak ezagutaraziko dizkiote elkarri, eta, pixkanaka, beste sentimendu batzuk ere landuko dira.

Garapena

Azaldu zer dinamika duen jarduerak:

Borobilean eserita dauden pertsonetako edozeinekin hasiko gara, eta eskatuko diogu ozen adierazteko bereziki gustatzen zaion zerbait edo zaletasun bat eta gustuko ez duen zerbait. Honela adieraziko dugu: "Atsegin dut..." eta "Ez zait gustatzen..."

Une horretan, sentimendu horiek berak dituzten pertsonak eskua altxatu beharko dute.

Hezitzaileak bat-etortze horien datuak jasoko ditu, eta, horretarako, jardueraren eranskinean dagoen txantiloia erabiliko du. Jasotako guztia beharrezkoa izango da talde handian azken hausnarketa egin ahal izateko.

Gero, erlojuaren orratzen noranzkoari jarraituz, hurrengo pertsonak gustuko dutena eta gustuko ez dutena adieraziko dute, eta besteek, haiekin bat badatoz, eskua altxatuko dute. Biribileko guztiek parte hartu dutenean, hausnarketari ekingo zaio.

Egin gogoeta

Hezitzaileak laburpen bat idatziko du arbelean: taldeko jendeari gehien zer gustatzen zaion eta zer ez zaion gustatzen jasoko du. Eta, ondoren, taldekoekin hausnarketa egingo du, honelako galderak oinarri hartuta:

- Konturatu al gara zenbat gauzatan gatozen bat besteekin?
- Sentimendu asko partekatzen al ditugu beste pertsonekin?
- Errazago ulertzen al ditugu beste pertsona batzuen gustuak gureekin bat badatoz?

Oso garrantzitsua da jakitea pertsona askok gure gustu berak dituztela, baina are garrantzitsuagoa da gureak ez bezalako gustuak dituztenak errespetatzen ikastea.

- Gauza batzuk guri bakarrik ez zitzaizkigula gustatzen uste al genuen?
- Hobeto uler ditzakegu beste pertsona batzuk eta haien jokatzeko modua, zer beldur dituzten jakinez gero?

[illegible]